

**NAHIKO TOPAKETA**

2017-06-05 Euskalduna Jauregia – Palacio Euskalduna 05-06-2017

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Sailburu andrea, Emakunderen zuzendari orokorra, ikastetxetako arduradun eta ikasleok, egun on.

Nik uste dut gaurkoan horrenbeste txalo txalpartaren ondoren, benetan zuek merezitakoak, baina badira ere merezi dutenak, Fernando eta antolakuntza lanetan ibili direnak eta zuen irakasleentzako, mesedez, txalo-zaparrada bat.

Nire eskerrik beroenak, lehenik eta behin, Emakunderen Nahiko programan parte hartu duzuen ikastetxe guztiei.

Berdintasunak inplikazioa eskatzen du, lana eskatzen du eta ahalegina. Berdintasuna lortzeko bidea ez da beti erraza izaten, baina bide hori egiteko ezinbestekoa da tresna egokiak izatea.

Gaur, hemen zaudeten ikasleok, erakutsi diguzue ondo hornituak eta prestatuta zaudetela gure gizartean berdintasuna praktikan jartzeko eta zabaltzeko.

Nahiko programaren bitartez ikasi duzue berdintasunak onurak dakarziola gure gizarteari. Berdintasuna giza eskubide bat da; bada ere gure gizartea hobetzeko tresna bat, indarkeriaren kontrako antidoto bat eta berrikuntzarako aukera bat.

Ikasi duzue nahi duzuen izan zaitezketela, neska ala mutil izateak ezin dituela mugatu inoren aukerak. Zuen aurrean etorkizun zabala daukazuela, nahi dituzuen ikasketak aukeratzeko, nahi dituzuen kirolak egiteko, nahi duzuen modukoak izateko sexuaren araberako mugarik gabe.

Nire eskerrik beroenak, baita ere, irakasleei. Zuen lana funtsezkoa da. Ikasleei mundua zelakoa den erakusteko ardura handia daukazuete eta mundua hobetzeko zer egin dezaketen ere iradokitzen. Zuentzat ere ahalegina suposatzen du egunerokoan berdintasuna kontuan izatea eta irakastea. Baina

badakizue, baita ere, lana eskatzeaz gain, ematen dituen fruituak ere balio handikoak direla. Horrela ikusi dugu orain arte Nahiko programari buruz egindako ebaluazioetan.

Euskal Herriko Unibertsitateak egindako ebaluazioan ikusi dugu Nahikorekin lan egin duten neska mutilek ezagutza handiagoa dutela generoko rolak eta estereotipoen inguruan; baita eskubideen inguruan ere. Neska mutil hauek, kontzienteago dira duten betebeharrei buruz, etxeko lanekin, adibidez.

Ikusi dugu, programa hau aplikatu den taldeetan agresibitatearen mailak behera eta enpatiaren mailak gora egiten dutela. Oso emaitza onak eman ditu orain arte eta, espero dugu, aurrerantzean ere horrela jarraitzea. Berdintasunean aurrera egiteak hori eskatzen digu.

“Berdintasuna, Giza eskubideak eta Errespetua.” Horra hor gure gizarteak behar dituen hiru balore garrantzitsu, Nahiko programarekin landu dituzuenak.

Beraz, guztioi, eskerrak bihotzez balore hauetan oinarritutako gizartea eraikiko duzuelako, zuok bai.

Eskerrik asko!